

# Herenegun material didaktikoari ekarpenak egin zizkieten erakundeekin maiatzean hitzartutako aldaketa-gidoira bideoen egokitzapenari buruzko txostena

## I. Aurrekariak

### 1. Lehendabiziko urratsak

2013-2016rako Bake eta Bizikidetzaren Planaren ebaluazioak eta 2017-2020 aldirako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planetik eratortzen diren aurreikuspenek hezkuntza-material bat prestatzea aholkatu zuten Memoria Hurbilari zegoen aldia (1960-2018) historiako ikasgaiaren txertatzeko DBHko 4. mailan eta Batxilergoko 2. mailan.

Material hau 2018ko urriaren 11n aurkeztu zen zirriborro gisa eta Legebiltzarreko talde guztiei, Euskadiko Eskola Kontseiluari, Gizalegez Akordioaren sinatzaileei, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluari eta Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren Aholku Batzordeari bidali zitzairen. Ekarpenera jasotzeko epe bat zabaldu zen 2018ko azaroaren 16ra arte, gero abenduaren 21era arte zabalik egon zena.

Ezarritako epean, 31 ekarpen-multzo jaso ziren. Hiru kategoriatan banatu ziren, edukiaren arabera:

- a. Material osoa auzitan jartzen zuten ekarpenak: zazpi alegazio.
- b. Materiala sakonki aldatzea iradokitzen zuten alegazioak: zazpi alegazio.
- c. Hezkuntza-materiala egokitzat jotzen zuten eta hobekuntza zehatz batzuk proposatzen zituzten ekarpenak: 17 alegazio.

Jasotako ekarpenak aztertu ondoren, Eusko Jaurlaritzak 2019ko urtarrilaren 24ean iragarri zuen hezkuntza-material honi buruzko adostasuna elkarrizketarekin, denborarekin eta jarrera irekiarekin kudeatzeko asmoa zuela. Ondorioz, esperientzia pilotuaren inplementazioa ikasturte bat atzeratzea eta ekarpenak egin zituzten erakunde guztiekin elkarrizketa-prozesua bati ekitea erabaki zuen.

### 2. Abian jarritako elkarrizketa-prozesuaren oinarriak

Garatutako elkarrizketa-prozesua "Herenegun material didaktikoaren inguruan adostasun zabal bat errazteko oinarriak" izenburua zeraman txostenean oinarritu zen. Txostenak ondorengo premisa etikoak eta pedagogikoak islatzen zituen:

#### 2.1. Premisa etikoak

*·Hezkuntza-materialak ezin du onartu terrorismoaren eta indarkeriaren edo giza eskubideen urraketaren legitimizazio formarik edo adierazpenik ere.*

*·Hezkuntza-materialak ezin du alde batera utzi, 60 urte horietan, giza eskubideen eta bizitza-eskubidearen aurkako eraso larria ekarri duen gertaerarik.*

#### 2.2. Premisa pedagogikoak

*·Herenegun hezkuntza-materialak sei hamarkadetako gertaera historiko funtsezkoenak ezagutarazten lagundu behar du historiako irakasgairako prestatuta dagoelako. Ez da ETAREN historiari buruzko materiala, Euskadiren historia hurbilari buruzkoa baizik; ETAREN historia aztertu gabe kontatu ezin den historia. Hezkuntza-materialak ETAREN historia eta, ETAREN jarduna bizi arren, aurrera atera ahal izan zen herri honen historia erakusten ditu paraleloan. Adi-adian biktima hezitzaileen hezkuntza-programarekin osagarria da, etika-ikuspegitik begiratuta, terrorismoaren eta indarkeriaren biktimetan arreta jartzen duen programa.*

*·Pairatutako giza eskubideen urraketa larri guztiak aipatu behar ditu hezkuntza-materialak, egilea axola izan gabe eta –denboran luzatu izanagatik, inposaketa politikoaren asmoa eta edukitako babes sozialarengatik– modu berezian jorratu behar du ETAK suposatu zuena zehazki, parekatzerik eta konpentsaziorik egin gabe gertaera biolento desberdinen artean. Arrazoi honengatik, hezkuntza-materialean jarraitasun-ardatza da ETA, bost dokumentaletan eta bost hamarkadetan zehar.*

*·Material honen pedagogia-estrategia ez da atera behar dituen ondorioak diktatzea ikasleei, gogoeta kritikoaren prozesua laguntzea baizik, interpelazioaren eta eztabaidaren bitartez, bere kontzientzian sakontzea eta bere ondorio propioak lantzea ahalbidetuko diona. Curriculumaren helburuek baieztatzen duten bezala "pentsatzen irakastea da kontua, ez pentsatu behar dena irakastea".*

*·Hezkuntza-material honek balio gorenaren bi erreferentziarekin lan egin behar du, bi erreferentzia horiek edozein gogoetaren aurretik kokatu behar dute: giza eskubideak eta pluralismoa. Ezerk ez du justifikatzen ezta legitimatzen ere giza eskubideen eta pluralismoaren balioa inongo arrazoi politiko, erlijiozko, ideologiko edo beste mota batekoren menpe. Esparru horretan ibilbide bat eskaintzen zaie ikasleei, bere gogoeta propioen aktore gisa zeregin aktiboa emanaz eta ez bakarrik aurrez prestatuta moduan eskaintzen zaion errezeta-liburu baten hartzaile edo ikusle pasibo gisa.*

Txosten horren barruan, bost dokumentalentsat aldaketa-gidoi proposamen bat txertatu zen jasotako iradokizun gehienei erantzuteko asmoz. Gauzak horrela, 2019ko otsailean, martxoan, apirilean eta maiatzean zehar, Eusko Jaurlaritzak hezkuntza-materialari ekarpenak egindako erakunde eta pertsona guztiei aldaketa-gidoi hori aurkeztu zien.

### **3. Aldaketa-gidoia adostasun zabalarekin**

Prozesu horretatik atera izan ziren ondorioak, eta 2019ko maiatzaren 29an publiko egin zirenak, ondorengoak dira

- 1. Azken lau hilabetetako elkarrizketaren ondoren, Herenegun material didaktikoan sartuko diren aldaketen proposamenak jarrera irekiarekin erantzun dira.*
- 2. Aldeko jarrera ireki hau behar bezain zabala eta zeharkakoa da dokumentalen aldaketa-prozesua zabaltzeko modukoa 2019-2020 ikasturtean esperientzia pilotua prestatze aldera.*

Elkarrizketa-prozesu horretan adostasunik zabalena piztu zituzten irizpideak, eta data berean publiko egin zirenak halaber, ondorengo puntuetan laburbildu ziren:

- Bideo bakoitzean idatzita agertzen den mezua indartzea, testua gehituz eta mezua irakurtzen duen off ahotsa txertatuz.*
- Bideoetan ateratzen diren biktimen profilak zabalduko dituzten testigantzak txertatzea zenbait ekarpenetan behin eta berriz azpimarratu izan delako.*
- Balio historiografikoa eduki dezaketen arren, eszenak birplanteatzea edo kentzea, zenbait ekarpenetan hala iradoki delako zalantzak sorrarazten dituztela eta.*
- Zenbait gaien tratamendua ñabartu edo erreferentziak gehitzea jasotako iradokizunei jarraituz.*
- Legebiltzarrean presentzia duten sentikortasun politiko guztietako ahotsen presentzia eskaintzen jarraitzea.*
- Informazio edo gogoeta historiko baliotsua eskaintzen duten ahotsak mantentzea. Ez txertatu gorrotoa edo bazterketa bultzatzen lezaketen baieztapenik ezta terrorismoaren legitimazioa iradoki dezaketen teoriarik ere.*
- Jasotako zenbait ekarpenetan proposatu den bezala, eszenak murriztea, muinekoa izaerarik ez dutelako.*

### **4. Neurri osagarriak**

Jasotako iradokizunak eta proposamenak kontuan hartuta, 2019ko maiatzean publiko egin zen konpromisoan txertatu ziren beste neurri osagarriak ondorengoak izan ziren:

- Esperientzia pilotuak bere garapenaren ebaluazio- eta sistematizazio-prozesu zorrotza jasango du. Emaizten arabera, esperientzia pilotua zabaltzearen aukera irekia geratuko da.*
- Esperientzia pilotua baldintza egokietan garatzen dela bermatzeko, hezkuntza-materialak berriro landu ondoren, ez dira jendaurrean jarriko bere ebaluazioa aurkeztu ahal izan arte.*
- Esperientzia pilotuaren aurretik, honen garapenean parte hartuko duen irakaslegoari formazioa eskainiko zaio.*
- Adi-adian biktima hezitzaileen programan parte hartu duten lau zentroetan eta programa honetan parte hartu ez duten beste lau zentroetan garatuko da esperientzia pilotua.*
- Etokizunari begira, material hau ez da historiako ikasgaira murriztuko soilik, etika, filosofia edo tutoretza bezlako beste eremuetan ere landu ahal izango da.*

## II. Bideoetan egin diren aldaketen deskribapena

### 1. Aldaketa orokor nagusiak

-Bideo bakoitzean idatzita agertzen den mezua indartu egin da, testua gehituz eta mezua irakurtzen duen off ahotsa txertatuz. Testua horrela geratu da:

*“Ideia bat bera ere ez dago pertsonaren balioaren eta bere giza duintasunaren gainetik. Giza eskubideak ezin daitezke urratu. Terrorismoaren eta indarkeriaren hamarkaden ondoren, ETaren amaierak bizikidetzaren garaia zabaltzen du. Dokumental honek kritikoki gogoratu nahi du zer gertatu zen eta ulertu nahi du zerk egin zuen posible. Ez lukete inoiz gertatu behar eta ez lirakeke inoz errepikatu behar orduko akatsak eta izugarrikeriak. Ezerk ez du justifikatzen giza eskubideen urraketa. Ezerk ez du legitimizatzen erailketaz baliatzea”.*

-Bideo bakoitzaren amaieran hausnarketa bat sartu da off ahots batek lagunduta, hamarkada bakoitza testuinguruan kokatzen duena, eta interpelazio batzuk zabalik uzten dutena ikasleen hausnarketa kritikorako. Bost gogoeta horien testua dokumentu honen eranskinean dago.

-Lekukotza berriak sartu dira, jasotako iradokizunei jarraituz, bideoetan ordezkaturako biktimen profilak zabaldu dituztenak. Oro har, fase honetan ETaren biktimen 9 testigantza berri sartu dira, bat GALen biktima batena eta beste bat poliziaren legez kanpoko indarkeriaren biktima batena.

-Bost dokumentalen mutzoan, orain 25 biktimen ahotsak entzuten dira:

- ETaren 16 biktima,
- jazarpen-indarkeriaren biktima 1,
- GALen 2 biktima,
- poliziaren legez kanpoko indarkeriaren biktimei ordaina emateko Dekretuak aitortutako 2 biktima,
- martxoaren 3ko 3 biktima, sekuentzia berean parte hartzen dutenak,
- eta tratu txarren salaketa egiten duen testigantza bat, Egunkaria kasuarekin lotuta eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiak epaia izan zuena.

-Jasotako iradokizunak kontuan hartuta, oro har, murriztu egin dira elkarrizketatutako politikarien piezak.

-Oro har, bideoetako pieza gehienek ukitu egin dira testigantza berriei lekua egiteko eta bideoen iraupena 20-22 minututik gorakoa ez izateko.

### 2. Kapitulu bakoitzaren aldaketa nagusiak

#### 1. bideoa. 60ko hamarkada

- Dori Monasterioren testigantza sartu da, ETaren lehen biktimetako baten alaba.
- "Spain after Franco" dokumentaleko ebakien hautaketa aldatu eta murriztu da, jasotako iradokizunei erantzunez.
- Concha Fernandez testigantza sartu da, Anton Fernandez alaba, poliziaren legez kanpoko indarkeriaren biktimak erreparatzeko Dekretuak aitortutako biktima.

#### 2. bideoa. 70eko hamarkada

- Conchi Fernandez, ETak hildako Aurelio Prieto guardia zibilaren alargunaren, eta Antonio Recio, ETak hildako Antonio Recio polizia inspektorearen semearen, testigantzak sartu dira. Coviteko kideak biak.
- Burgosko prozesuaren inguruko sekuentzia egokitu da, jasotako hainbat iradokizunei erantzunez.
- Carrero Blancoren aurkako atentatuari buruzko sekuentzia egokitu da, ildo horretan jasotako hainbat iradokizunei erantzunez.
- 1974an Madrilgo Correo kalean 13 hildako eragin zituen atentatuari buruzko sekuentzia bat gehitu da, artxiboko irudiekin.
- Erreferentzia bat gehitu zaio etorkizuneko Eusko Jaurlaritzaren enbrioia izango zen Ramón Rubial buru zuen Eusko Kontseilu Nagusiaren sorrerari.

- PCE alderdiko Pedro Santisteban Hurtadori egindako elkarrizketa bat sartu da, nazionalista ez den ezkerrean eman zen indarkeriari buruzko eztabaida azaltzen duena.
- Euskadiko Alderdi Komunistak deitutako ETArek aurkako lehen manifestazio ez-jendetsuaren aipamena sartu da.

### **3. bideoa. 80ko hamarkada**

- Jose Vargas Hipercorreko biktimari egindako elkarrizketa aldatu da, elkarrizketatuarekin adostuta.
- ETArek biktima izan zen Ramon Bagliettoren alargun Pilar Eliasen testigantza gehitu da.
- Bakearen Aldeko Koordinakundeari buruzko sekuentzia osatu da, ETAk bahitutako pertsonen egoera eta kontramanifestazioak salatzeke izandako zereginari buruzko informazioa zabalduz.
- Enpresaburuek jasan zuten estortsioa aipatzen da, Eusko Jaurlaritzak enkargatutako txosteneko datuetan oinarrituz off-a.
- ETAk Leizarango autobidearen eraikuntzaren aurka egindako atentatuei aipamena gehitu da.
- Alberto Muñagorriren testigantza sartu da; haurra zela, larri zauritu zen, ETAk kalean bonba bat zartarazita.
- GALek hildako Juan Carlos Garcia Goenaren alaba Maider Garcia Martinen testigantza sartu da.
- Kendu egin da droga-trafikatzaileri izatea egotzita ETAk eraildako pertsonen buruzko aipamena, jasotako hainbat iradokizunei erantzunez.
- Charo Cadarsoren testigantza sartu da, ETAk Basaurin hil zuen Luis Cadarso Guardia Zibileko teniente koronelaren alabarena.

### **4. bideoa. 90eko hamarkada**

- Jorge Mota ETAk biktima baten anaia eta AVTk Euskadin duen ordezkariaren testigantza sartu da.
- ETAk kaputxadunen irudiak kendu dira, jasotako hainbat iradokizunei erantzunez.
- Sara Buesaren testigantza sartu da, 2000. urtean ETAk hildako Fernando Buesaren alabarena.
- Hamarkada horretan jazarpen-indarkeria jasan zuten pertsonen buruzko aipamena zabaldu da.

### **5. bideoa. 2000 urteak**

- Sandra Carrascoren testigantza sartu da, 2008an ETAk hildako Isaias Carrascoren alabarena.
- ETArek azken urteetako atentatuei buruzko informazioa zabaltzen duen atal berri bat sartu da.
- Hasier Arraizi eta Borja Sempenni egindako bi elkarrizketetan aukeratutako mozketak zabaldu egin dira.
- Aldaketa puntualak egin dira ETArek amaierari buruzko kronologiaren hobeto ulertzeko.

2019ko azaroa

## **Eranskina. Kapitulua bakoitza itxiko duen gogoeta-testua off ahots bat bidez**

### **1. bideoa. 60ko hamarkada. Bizitza-eskubidea**

Diktadura sistema erabat bidegabea da. Giza eskubideak urratzen ditu, eta oinarrizko askatasunak ezabatzen ditu. Frankismoak 40 urte luzez luzatu zuen egoera hori.

Agian horregatik, ETArek sorrera eta haren lehen urratsak nolabaiteko ulermen-mailarekin ikusi zituzten Euskadiko zein Espainiako pertsona eta kolektibo askok.

Gaur, denboraren perspektibarekin, badakigu akats izugarria izan zela. Sufrimendu bidegabea eta atzerazina eragin zuen bere biktimentzat eta gizarte osoarentzat. Ezerk ez du justifikatzen indarkeria erabiltzea eta giza eskubideak urratzea.

Gogoeta bat geratzen da zabalik: zergatik da beti onartezina beste gizaki baten bizitza eskubidearen aurka egitea.

### **2. bideoa. 70eko hamarkada. Xedeak ez ditu bitartekoak justifikatzen**

70eko hamarkadan, gure gizarteak tentsio handiko garaia bizi izan zuen. Zaharra zena, Diktadura, ez zuen hiltzen amaitzen eta berria zenak, Demokraziak, ez zuen jaiotzen amaitzen.

Frankismoaren azken astinduak gogorak eta bidegabeak izan ziren: errepresio orokortua, heriotza zigorrak, torturak, eta giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen urraketa.

Hala eta guztiz ere, indar politiko gehienek indarkeria ez zela bidea erabaki zuten. ETAk indarkeriaren aldeko apustua egin zuen, eta terrorismoarekin jarraitzea erabaki zuen, baita Amnistiaren eta Konstituzioaren eta Estatutuaren onarpenaren ondoren ere.

Begi bidezko begia ez da bidea. Arrazoi sakonak daude sostengatzeko xedeak ez dituela bitartekoak justifikatzen eta giza eskubideak beti errespetatu behar direla.

### **3. bideoa. 80ko hamarkada. Autokritikaren balioa**

70eko hamarkadaren amaiera eta 80ko hamarkadaren hasiera terrorismoak eta indarkeriak biktima gehien eragindako urteak izan ziren.

Hiltzea erru erradikala da, egiten duenak egiten duela. Erakunde terrorista batek edo beste batek egiten badu, edo legez kanpoko indarkeria poliziala egiten badu.

Triple A, GAE, BVE eta talde parapolizialek 46 lagun hil zituzten. 80ko hamarkadan, GALEk 28 hilketa eragin zituen.

80ko hamarkadan bakarrik, 500 pertsona baino gehiago hil zituen ETAk. Bizitzeko eskubidearen urraketen erantzule nagusia izan zen urteotan.

Gizarte gisa autokritika egin dugu: indarkeriaren aurrean argiago erantzun behar izan genuen, eta biktimei eta haien sufrimendu handiari askoz lehenago begiratu behar izan genien.

Autokritikak laguntzen al du nolabait iragana erreparatzen?

### **4. bideoa. 90eko hamarkada. Zer da lehendabizi?**

90eko hamarkadan, ETAk atentatu izugarriak egiten jarraitu zuen. Gizartea indartsu hasi zen erantzuten indarkeriaren aurrean.

Dogmatismoa ezinbestekoa da indarkeriara jotzeko. Hiltzera iritsi naiteke, arrazoi osoa dudala sentitzen dudalako eta nire ideiak edo nire taldea lehenengo gauza direla uste dudalako.

Baina inor ez da egia osoaren jabe. Ez nire ideiek, ez nire taldeak ez dute bizitzak eta giza duintasunak baino gehiago balio. Lehenengo gauza pertsona errespetatzea da.

Aukeratzeko kontzientzia dugu. Gure ekintzen eta ondorioen erantzule gara.

Beti dago indarkeria baino alternatiba hoberik: zailtasunen artean aukerak bilatzea.

Ez al datza horretan bizitza eta bizikidetzatza?

## **5. bideoa. XXI. mendearen lehendabiziko hamarkada. Galdera irekiak**

ETAk 2010ean egin zuen bere azken atentatu hilgarria. 2011n, indarkeriaren amaiera iragarri zuen, eta 2018an, bere desegitea. Terrorismoak eta edozein zeinuren indarkeriak ekarri zuten guztia suntsitzailea izan zen. Baita egin zutenen familiengan eragin zuen kaltea ere.

Haren amaieraren ondoren, zauri sozial eta politikoak geratzen dira bizikidetzan; haren deslegitimazioa azpimarratzeko beharra geratzen da, eta geratzen da, batez ere, biktimei eta haien familiei eragindako sufrimendu bidegabearen aztarna. Eta galdera batzuk geratzen dira:

Zein izan behar da gizarteak biktimenganako duen konpromisoa?

Nola eraikiko dugu elkarrekin gertatutakoaren memoria kritikoa?

Zer espetxe- eta gizarteratze-politika sustatu behar da?

Nola eraikiko dugu bizikidetzatza adiskidetzatza?

Gure iraganari ez ezik, orainari eta etorkizunari ere eragiten dioten galderak dira. Giza eskubideen eta pluralismoaren errespetuak, salbuespenik gabe, iraganaren parte izan behar zuen, eta oraina eta etorkizuna da.